

bbk **euskararekiko konpromisoa****ELKARRIZKETA****IRAITZ URKULO**

Nerea Arrien (Lekeitio, 1976) euskal literaturaren plazara iritsi berria da, izan ere, 'Pentsatzeko txokoa' (Erein) du lehen liburua, 2015eko Lizardi sariari esker kaleratutako haurrentzako ipuina. Estibalitz Jalón marrazkilariaren ilustrazio ederrek laguntzen dute haren testua. Deba izeneko hamaika urteko neskatoren bidez, haurren heziketaz eta emozioen garrantziaz hausnartzeko aukera eskaintzen digu.

– **Zer toki betetzen du literaturak zure egunerokoan?**

– Ariketa bat da idaztea niretzat. Korrika egitea bezalako. Beste era bateko zapatilak janzten ditut, eta beste era bateko izerdia botatzten dut. Kostatzen zait, disfrutatzen dut eta garbitu egiten nau.

– **Zer dela eta aukeratu duzu istorioa hamaika urteko neskatoren baten ikuspegitik kontatzea?**

– Lehen hezkuntzako seigarren mailako gelan irakasle aritu nintzen urtean, Darwin bezala sentitu nintzen. 10-13 urte bitarteko gazetxoak 'espezie berri' bat zirela iruditu zitzaidan. Ez dira haurrak, ezta nerabeak ere. Edo biak dira. Barneak eztanda egiteko zorian bizi dira. Beraien magia ikusezin horren gatibu naiz. Nerabezaroa oso deskribatua dago, baita haurtzaroa ere. Adin tartean honentzako material gutxi aurkitu nuen eta zerbait egitea erabaki nuen.

– **Nola lortu duzu protagonistaren buruan sartzea, haren lekuan jartzea?**

– 'Voyeur' hutza naiz. Askok gustatzen zait besteegi begiratzea eta haien bizitzak fikzionatzea. Neurea ere asmatzeko joera dut, txikitatik. 'Pelikulera' bat naiz.

– **Debak, orde, helduek ulertzen ez dutela sentitzen du. Ez ote dute guraso eta irakasleek denbora gehiegi galtzen haurrei gi-**



Nerea Arrien, bere azken liburua eskuetan duela. :: E. C.

«Irudimena erabili eta arriskatu behar da»

Nerea Arrien Idazlea. 'Pentsatzeko txokoa' aurkeztu du, Lizardi Saria jasotako haurrentzako ipuina

zarte arauak azaltzen, haiek ulertzeko ahalegina egin behar?

– Gaur egungo gizarteak seme-alabak hazteko oztopoak baino ez dizkigu jartzten. Nire ustez, erditzen duena errespetatzen ez duen gizarte, ez da gai ezer erditzeko. Erditu esaten dudanean, hazi eta hezi ere esan nahi dut. Haztean eta hezitean alde kualitatiboa kuantitatiboa baino «garrantzitsuagoa» omen da. Horrekin, umeei denbora gutxi eskaintzea ez dela txarra konbentzitu nahi gaituzte. Eta zuk aipatzen duzun umeen mun-

du hori beraiekin egonez baino ez da ezagutzen.

– **Zergatik tematzen gara helduok haurrek inguruko errealitatea arrazionalizatu dezaten?**

– Adimen 'produktiboa' baloratzen duen gizarte batean bizi garela. Baina adimena era askotakoa da, eta ekoizpen anizkoitzekoa. Ekoizpen horiek ikusteko emozioek lan egin behar dute, irudimenak, zorotasunak, kaosak... eta horretarako ez daukagu denborarik. Askok 'zuzenagoa' da batuketak eta kenketak era klasikoan irakastea, horrelako sal-

tsa batean sartzea baino. Aspergariagoa ere bai.

– **Ipuinean hainbat aldarrikapen egiten dira. Esaterako, erosketak auzoko dendetan egitearen garrantzia.**

– Nire alabaren gelako neskatila batek marrazkiak egiten ditu. Bere gurasoek marrazki horiek oihaletan estapanatzen dituzte. Ama jostuna izanik, oihalariekin arropa zoragarriak egiten ditu. Horrelako dendak eduki nahi ditut nire kalean. Irudimenetik jaiotako produktuak dituen, ez beharizanaren esplozaziotik.

– **Historian emakumei uka-**

tu zaien tokia ere aldarrikatzen da.

– Betidanik gustatu zaizkidan emakumeak sartu nahi izan ditut liburuan; Scarlett O'Hara, Bonnie and Clyde, Madame Curie, eta beraien bertsio garaikideago batzuk. Pentsamenduarekin eta emozioekin erlazio zuzena duten emakumeak dira. Batzuek pentsatzea hurrengo egunerako uzten zuten, beste batzuek pentsatzen zutela ezkutatu behar zuten. Sentimenduak ideia bilakatzen zituzten emakumeak. Beren tokia aukeratu zutenak.

– **Familia-eredu ezberdinak**

txertatu dituzu. Familia zoriontsu eta perfektuaren iruditik aldentzea bilatu duzu?

– Pertsonaiak akatsez (edo ez) beteak sortu ditut. Ama artista kontsumitzailea, aita psikiatra neurotikoa, pentsatzea zigor bat dela irakasten duten irakasleak... Horrelakoak gara, zergatik ezkutatu? Sinesgarritasuna ematen diguna ezkutatzeko ez dugun hori da. Ezkutatu bagenu ere ikusiko litzateke, pertsonaia perfektuei egurrezko sudur luze bat ateratzen zaie eta.

Ohe ertzean eserita

– **Nori zuzenduta dago zure obra? Haurrei? Gurasoei? Irakasleei?**

– Hirurei. Askotan alabari neuk irakurtzen dizkiot liburua; ni bezala ohe ertzean esertzen diren gurasoei keinu bat egin nahi izan diet. Gainera, liburuaren bidez emozioak landu daitezke. Horregatik, blog bat sortu dut (pentsatzekotxokoa.weebly.com), irakasleei lagungarri izango zaielakoan. Bertan emozioak lantzeko tresna, baliabide eta dinamikak aurkezten ditut.

– **Une jakinetan, irakurlearen parte hartze zuzena eskatzen duzu, Debari erabakitzen lagundu diezaion. Zein da horren helburua?**

– Irakurtzeko modu ezberdina daude. Ume batzuk letraz aspertu egiten dira. Zerbakizko hizkuntza dago, 'visual thinking'a, umeak nati-bidigitalak dira... testuingurua (literalki ere) asko aldatu da. Nire ustez, irakurleari heltzeko beste era batzuk uzartu behar dira. Irudimena erabili eta arriskatu behar da.

– **Nola deskribatuko zenuke zure idazkera?**

– Esaldi motzak egiten ditut. Adierazi nahi dudana gordin atera nahi izaten dut. Hitz gehiegi erabili gabe. Batzuetan kriptikoegia bada ere, esaten ez denaren xarmaren aldekoa naiz. Irakurketa azkarrak izatea gustatuko litzaidake, baina barruan ez dakizun zerbait hori uzten duena.

– **Nola baloratzen duzu lehen obra argitaratu izanaren esperientzia?**

– Oso pozik nago. Liburua oso fina geratu da. Marrazkilariak, Esti Jalonek, lan ederra egin du. Liburua eskuan daukadanean izartxo bat daukadala iruditzen zait.



Eman hegoak euskarari

